

**I. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO FORU ADMINISTRAZIOA****Foru Enpresak eta Foru Erakundeak****DEMA - Enplegu eta Ekintzaitza Foru Agentzia**

Taldea Digitala-Ekintzaitza taldeak programaren deialdia arautzen duten oinarri espezifikoak. 2021eko urria.

Indarrean dagoen araudia betez, Taldea Digitala programaren 2021eko urriko deialdiko oinarri espezifikoak argitaratzen dira.

Barakaldon, 2021eko urriaren 14an.—DEMA-Enpresa Garapeneko Zuzendari Gerentea, María Victoria Riol Rojo

**TALDEKA DIGITALA-EKINTZAILTZA TALDEAK PROGRAMAREN
DEIALDIA ARAUTZEN DUTEN OINARRI ESPEZIFIKOAK****1. Oinarrien xedea**

Taldeka Ekintzailtza taldeak programa arautzeko oinarri orokorrak argitaratu dira gaurko Aldizkarian.

Oinarri horien 2. artikulua dioenez, «Programak zenbait deialdi onartu ahal izango ditu, eta deialdi bakoitzerako oinarri espezifikokoak argitaratuko dira deialdi horietako bakoitzarentzat, epeei, eskaeren aurkezpenari, jarduera kolektiboari, kokalekuari eta gainerako elementu espezifikoei dagokienez».

Taldeka Digitala programaren deialdia martxan jartzea erabaki denez, hemen argitaratzen dira 2021eko urriko deialdi hau arautuko duten oinarri espezifikokoak.

2. Araudi aplikagarria

Deialdi hau, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, 2021eko otsailaren 11n argitaratutako Taldeka Ekintzailtza Taldeak programaren oinarri orokorrek eta oinarri espezifikoko hauetan bildutako xedapenek arautuko dute.

3. Deialdiaren hartzaileak. Parte hartzaileek bete beharreko baldintza orokorrak

Taldeka Ekintzailtza taldeak programaren deialdi hau bereziki ekintzailtza bidez mundu digitalera salto egin nahi duten langabetuei eta lana eduki arren enplegua hobetzeko prozesuan daudenei zuzenduta dago.

Deialdian parte hartu nahi duten pertsonak, Oinarri Orokorretako baldintza guztiak bete eta egiaztatu beharko dituzte.

4. Programaren edukia eta sartzeko baldintzak

Taldeka Ekintzailtza Programak gehienez 30 laguneko talde heterogeneo bat hautatuko du, lanik gabe edo beren egungo enplegua hobetzeko prozesuan dauden pertsonen osatua, Oinarri Orokorretan jaso diren sarrera baldintzen eta programa garatzeko printzipioen arabera.

Bizkaiko Foru Aldundiaren maiatzaren 25eko 77/2021 Foru Dekretuaren babesean, non 2021. ekitaldiko ekimen ekintzaileak sustatzeko diru-laguntzak emateko oinarri arautzaileak ezarri eta deialdiak onetsi dira: «autoenplegua, enpresa-transmisioa, enpresa-finkapena edo antzeko izaera duen beste bat», negozio plana garatu duten 15 pertsona, Taldeka Digitalaren I. Fasean onartzeko gaitasuna du DEMAK, mundu digitalean egoki ekiteko metodologia, ikuspegi eta gomendiorik onenak jasoz, beraien helburua lortzen lagunduz, proiektua identifikatzeko tresnak emanaz eta mundu digitalarekin lotutako negozio ideiak abian jarritz.

Pertsona horiek ez dira Taldeka Digitala programaren parte hartzaileak izango. Aurreko paragrafoan azaldutako prestakuntza espezifikoa jasotzeko eskubidea baino ez dute izanen.

5. Programa gauzatzeko lekua

Programako ekintzak formatu telematikoan egingo dira, astean 3 egunetan, eta astean behin Bilbon egingo dira.

6. Programaren faseak

1.fasea. —(hilabete bat gutxi gorabehera) Pertsona barneko eta pertsonen arteko gaitasunak garatzea, negozio gaitasunak garatzea eta negozio-planaren hasiera

Partehartzaileek metodologia, ikuspegi eta gomendio onenak jasoko dituzte, mundu digitalean era egokian hasteko, haien xedea lortzen laguntzeko helburuarekin. Horretarako proiektua ezagutzeko tresna egokiak jarriko zaizkie eta haien negozio ideia, mundu digitalarekin lotuta dituzten ideak martxan jartzen lagunduko zaie.

*II. fasea. —(4 hilabete gutxi gorabehera) Negozio plana amaitzea*

Pertsona sustatzaile edo talde sustatzaile bakoitzak negozio plana garatu eta amaitu beharko du.

III. fasea. —Enpresen sorrera eta jarraipena

Plana martxan jartzeko laguntza zerbitzuak 12 hilabete iraungo du, JEZn alta hartu eta jarduera hasten den egunetik kontatzen hasita.

7. Eskaerak aurkezteko epea

2021eko azaroaren 3ko, 23:59ra arte.

8. Eskaerak aurkezteko lekua

Izen-ematea telematikoki egingo da honako helbide elektronikoko honetan:

<http://www.dema.eus/forms/taldekadigitala.php>